

BIGARREN HEZKUNTZA

Garapenari buruzko datuak aztertu ahal izateko, herrialdeak sailkatu beharko ditugu. Horretarako, giza garapenaren indizea (GGI) erabiltzen da. Nazio Batuen Garapenerako Programako (NBGP) kontzeptu bat da hori, eta oso baliagarria da munduko herrialdeak haien bizi-mailaren arabera sailkatzeko. GGI kalkulatzeko, funtsezko hiru alderdiri buruzko datuak hartzen dira kontuan:

- **Osasuna:** jaiotzean izaten den bizi-itxaropena du ardatz, horrek osasunari, elikadurari, higienerari eta bizimoduari buruzko datuak ematen dizkigulako.
- **Hezkuntza:** hezkuntza jasotzeko aukerak.
- **Maila ekonomikoa:** pertsona bakoitzeko diru-sarrerara nazional gordina.

Herrialdeak beren GGI indizearen arabera sailkatu ondoren, munduko biztanleria lau multzo hauetan banatuta geratuko litzateke (NBGPren 2018ko txosteneko datuetan oinarrituz).

GGI	Biztanle kopurua	
	milioiak	Munduko biztanleen ehunekoak
Oso altua (62 herrialde)	1.439,3	19%
Altua (54 herrialde)	2.378,9	32%
Ertaina (37 herrialde)	2.732,9	37%
Baxua (36 herrialde)	926,2	12%

Lagungarri gisa, honako mapa hau ikus dezakezue.

Herrialdeen sailkapena, Giza Garapenaren Indizearen (GGI) arabera

